

GIZONDUZ

EKIMENA

2015ko

MEMORIA



AURKIBIDEA

1 HITZAURREA

2 2015EAN EGINDAKO JARDUERAK

2.1 WEBGUNEA

2.2 PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA

2.3 AITAK+ KANPAINA

2.4 GIZONDUZ-EN JARDUNALDIA: “EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAK 10 URTE: AURRERAPAUZOAK ETA ERRONKAK GIZONEKIN LANEAN”

2.5 GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0 PROIEKTUA

2.6 PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-JARDUEREN HEDAPENA

2.7 NAZIOARTEKO JARDUNALDI ETA TOPAKETETAN PARTE HARTZEA

2.8 GIZONDUZ PROGRAMAREN EBALUAZIOA

2.9 AHOLKULARITZA

1 HITZAURREA

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindari bat da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak sustatua, eta helburu du gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz kontzientziatzea, eta horretan inplikatu daitezen eta parte har dezaten bultzatzea.

Helburuak **Gizonduz ekimena sortzen duen agirian** zehazten dira, eta honako hauek dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko prestakuntza duten gizonen kopurua handitzea.
- Gizonak etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.

Gizonduz ekimenaren barruan egindako jarduerak dokumentu hauetan daude jasota: **Gizonduz ekimenaren memoria: 2007-2010 epealdia**, **2011eko Jarduera Memoria**, **Gizonduz ekimena**, hemen: **2012ko Jarduera Memoria**, **Gizonduz ekimena**, hemen: **2013ko Jarduera Memoria** eta **2014ko Jarduera Memoria**.

2 2015EAN EGINDAKO JARDUERAK


2.1 WEBGUNEAK



2008ko apirilean, berdintasunaren aldeko gizonei buruzko webgune espezializatu bat sortu genuen (www.euskadi.net/gizonduz), eta hori kudeatzen jarraitu genuen 2015ean. Webgunean, ekimenari buruzko informazio ugari aurki daiteke, hainbat euskarritan, bai eta atal hauek ere: elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietarako loturak, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako euskal gizonen gutunari atxikitzeko eremua, eta abar.

2015. urtean zehar, Gizonduz webguneak 23.839 bisita izan zituen. 2015ean, Euskal Autonomia Erkidegotik 8.375 bisita egin ziren, honela banatuta:

Euskal Autonomia Erkidegoa bisitak



23.271 bisiten guztirako kopurutik % 83,5 Espainiatik egin ziren, eta gainerako bisitak beste herrialde batzuetatik. Bisitak egitean aukeratu den hizkuntzari dagokionez: erabiltzaileen % 84,14k gaztelaniazko bertsioa erabili zuten, % 2,83k euskarazkoa eta % 3,34k ingelesezkoa.

2.1.1 Bloga

Gizonduz ekimenaren blogean, eztabaidak, albisteak eta informazio erabilgarria proposatzen dira. Herritarrek ere parte har dezakete, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitateekin lotutako gaiet buruzko iritzia, gogoetak eta iruzkinak aditzera emateko.

2015eko urtariletik abendura, 114 sarrera kargatu ziren, kategoria hauetan sailkatuta: erakundeen ekimenak, indarkeria maskulinoak, emakumeen aurkako indarkeria, gizonen taldeak, eta gizonak eta berdintasuna. 2008 uztailetik, Gizonduz ekimenaren bloga abiarazi genuenetik, 934 sarrera kargatu dira.



2.1.2 Elkarrizketak

Atal horretan, berdintasunarekin zerikusia duten pertsonen egindako elkarrizketak jasotzen dira. 2015ean, pertsona hauek elkarrizketatu ziren:

- **Christian Veske**, Genero Berdintasunaren Europako Institutuko (EIGE) Gizonak eta Berdintasuna Arloko burua.
- **Fórum Feminista María de Maeztu** elkarte. 1988. urtean eratu zen elkartea. 2015ean, 25 urte igaro ostean, Emakunderen Berdintasunaren saria jaso zuen.
- **Mariano Nieto**, Estatuko Red de Hombres por la Igualdad sareko kidea. PPIINA plataformako zuzendaritza-taldeko kidea.
- **Gerard Coll-Planas**, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko soziologia-doktorea eta Vic-eko Unibertsitateko irakaslea. Azken unibertsitate horretan, Centre d'Estudis Interdisciplinaris de Gènere zentroa zuzentzen du.
- **Raquel (Lucas) Platero**, soziologian doktorea, eta unibertsitateko eta esku-hartzeko sozio-komunitarioko irakaslea. URJC/Rey Juan Carlos Unibertsitateko Genero Katedrako kide da.
- **Mikel Otxotorena Fernández**, soziologoa, berdintasunerako On:Giz elkartearen eta Berdintasunaren Aldeko Euskal Herriko Gizonen Elkargunearen (Gizon Sarea) sortzaileetako bat.
- **Michael Kaufman**, nazioarteko aditua gizonen berdintasunaren alde egiten duten lanean. Begizta Zuriaren kanpainaren sortzaileetako bat (kanpaina hori mundu osoan da ezaguna; 1991. urtean sortu zen, Kanadan, gizonen emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokan parte hartzeko asmoz), Promundo institutuko ikertzailea eta MenCare-ko kidea.

2.1.3 Sare sozialak

Gizonduz Facebooken dago 2009. urteaz gero. 2015ean, batez beste, 5.081 lagun zituen. % 35 emakumezkoak dira eta % 60 gizonetzkoak. 351 argitalpen egin ziren; eta egunean, batez beste, 803 pertsonak ikusi dute orria.


Gizonduz-ek 897 jarraitzaile ditu Twitterren. 2011. urtean guztira 2.376 tuit idatzi ziren. 2015. urtean idatzi ziren, gainera, horietako 1.505.

Halaber, Gizonduz-ek kontu bat du YouTubeen. Berdintasunari eta maskulinitateari lotutako hitzaldien, tailerren eta iragarkien bideoak ikus daitezke web horretan, baita ikus-entzunezko materialak ere. YouTubeko Gizonduz orrialdean 22 bideo daude, eta 2015. urtean 1.251 aldiz ikusi dira bideo horiek.

2.2 PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA

2009ko martxoan, Gizonduz-en lehenengo prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa jarri genuen abian.


Gizonduz-en prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa abian jarri zenetik 2015eko abendura arte, 9.894 pertsonak parte hartu dute ikastaroetan (aurrez aurrekoetan eta online direnetan): 5.273 gizonen (% 53,3) eta 4.561 emakumeen (% 46,1).



2.2.1. Aurrez aurreko ikastaroak

2009tik 2015era, biak barne, 398 aurrez aurreko ikastaro egin dira (horietako 49 2015ean egin dira). 8.327 pertsonak parte hartu dute horietan: 4.753 gizonak eta 3.474 emakumek.


Aurrez aurreko ikastaroetan izan den parte-hartzearen bilakaera.



Ikastaro horiek honela banatzen dira:

Urtea	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
2009	241	512	753
2010	900	895	1795
2011	638	821	1459
2012	677	768	1445
2013	389	628	1017
2014	375	662	1037
2015	354	467	821
GUZTIRA	3574	4753	8327

Ikastaro motari dagokionez, 2009tik 2015era, biak barne eta emandako orduen araberako taldekatuta, ikastaroen banaketa honako hau izan da:



Ikasleen % 32,5ek 2 eta 3 ordu arteko ikastaroetan parte hartu dute. % 41ek 4 eta 10 ordu arteko ikastaroetan parte hartu dute, eta % 26,5ek hamar ordutik gorako ikastaroetan parte hartu dute.


2015ean garrantzi handiagoa izan dute lanagatik edo gizaratean duten agerpenagatik eragin biderkatzailea izan dezaketen pertsonentzako ikastaroak, parte-hartzaile bakoitzak ikasitako edukiak eta egindako gogoetak lan-arloan edo jendartearen baliatu ditzan. Eragin biderkatzaile hori duten lanetan dabiltzan taldeekin eta pertsonekin lan egiteko erabakiaren ondorioz, ez dira bete programan jasotako prestakuntza-eskaera guztiak; gainera, aurreko urteekin alderatuta, pertsona eta ikastaro kopurua txikitu egin da. Bestalde, aurreko urteekin alderatuta, orain ere, iraupen luzeeneko

ikastaroen portzentajeak gorakada nabarmena izan du; horrek, bada, ikastaro horien prestakuntza-izaera indartzen du.

2015ko AURREZ AURREKO IKASTAROAK

2015eko Ikastaroak	Ordu kp.	Orduen %	Ikasleak, guztira	Ikasleen %	Gizonak	Emakumeak
2-3 orduko 13 ikastaro	35	11,14 %	269	32,50 %	132	137
4-9 orduko 23 ikastaro	115	36,50 %	334	41 %	224	110
10 ordu edo gehiagoko 13 ikastaro	164	52,50 %	218	26,50 %	111	107
Guztira 49 ikastaro	314		821		467	354

2015ko AURREZ AURREKO IKASTAROAK



Erakunde eskatzaileen arabera, hauek izan ziren aurrez aurreko ikastaroak:

Sindikatuekin eta enpresekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroen taula

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-orduak
CEBEK: Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa	Maskulinitateak, berdintasuna, arriskua eta sexu-jazarpena	CEBEKeko kideak	2
Cebek	Maskulinitateak, berdintasuna eta lan-merkatua	CEBEKeko kideak	4
Esk Araba	Maskulinitateak eta sexu-jazarpena lantokian	Sindikatuetoako ordezkariak	3
Esk Bizkaia	Maskulinitateak eta sexu-jazarpena lantokian	Sindikatuetoako ordezkariak	3
Esk Gipuzkoa	Maskulinitateak eta sexu-jazarpena lantokian	Sindikatuetoako ordezkariak	4
CCOO Araba	Maskulinitateak eta indarkeria sexista	Sindikatuetoako ordezkariak	3
CCOO Bizkaia	Maskulinitateak eta indarkeria sexista	Sindikatuetoako ordezkariak	3
CCOO Gipuzkoa	Maskulinitateak eta indarkeria sexista	Sindikatuetoako ordezkariak	3
Esk Gipuzkoa	Maskulinitateak eta sexu-jazarpena lantokian	Sindikatuetoako ordezkariak	4
Berria Egunkaria	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Langileak	10

Erakunde publikoekin elkarlanean egindako aurrez aurreko ikastaroen taula

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-orduak
Abantoko Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Herritarrentzat, oro har	2
Arratiako Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Herritarrentzat, oro har	2,5
Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako Saila	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak eta mikromatxismoak	Bertako langileak	3

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen- orduak
Vitoria-Gasteizko Udala	Gazteak berdintasunaren, maskulinitateen, IKTen eta berdintasun-harremanen aurrean	Bertako langileak	4
Beasaingo Udala	Gizonak, maskulinitateak eta kirola	Bertako langileak	4
Durangoko Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Herritarrentzat, oro har	4
Eusko Jaurlaritza, Lehendakaritza	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Langileak	4
Vitoria-Gasteizko Udala	Gazteak berdintasunaren, maskulinitateen, IKTen eta berdintasun-harremanen aurrean	Bertako langileak	6
Vitoria-Gasteizko Udala	Gizonak, berdintasuna, droga-menpekotasuna eta giza eskubideak	Bertako langileak	6
Euskotren sozietate publikoa	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Plantilla	6
Euskotren sozietate publikoa	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Plantilla	6
Euskotren sozietate publikoa	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Plantilla	6
Euskotren sozietate publikoa	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Plantilla	6
Euskotren sozietate publikoa	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Plantilla	6
Bilboko Udala	Maskulinitateak, berdintasuna eta aitatasunak	Bertako langileak	6
Eusko Jaurlaritza, Herri Administrazio eta Justizia Saila	Gizonezkoen indarkeria, emakumeen aurkako indarkeria, gizonak, zaintzak eta etxeko lanak	Bertako langileak	10
Eusko Jaurlaritza, Segurtasun Saila	Maskulinitateak, berdintasuna eta arriskuak	Bertako langileak	10
Eusko Jaurlaritza, Segurtasun Saila	Maskulinitateak, berdintasuna eta arriskuak	Bertako langileak	10
Eusko Jaurlaritza, Segurtasun Saila	Maskulinitateak, berdintasuna eta arriskuak	Bertako langileak	10
Ermuko Udala	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Gizarte Zerbitzuak	10
Bizkaiko Foru Aldundia	Maskulinitateak eta indarkeriaren prebentzioa	Bertako langileak	12
Eusko Jaurlaritza. Justizia eta Herri Administrazio Saila. Adingabekoen Ibaiondo zentroa	Gizonak, berdintasuna eta indarkeria	Bertako langileak	10
Emakunde	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Herritarrentzat, oro har	20

Hezkuntza-entitateekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroaren taula

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-orduak
Anaitasuna Ikastola. Ermua	Gazteak Berdintasunean 2.0.	Ikasleak	2
Eskoriatzako Irakasleen Eskola	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Ikasleak	2,5
Anaitasuna Ikastola. Ermua	Gazteak Berdintasunean 2.0.	Ikasleak	3
Anaitasuna Ikastola. Ermua	Gazteak Berdintasunean 2.0.	Irakasleak	3
PEO Bizkaia	Gizonak, berdintasuna eta indarkeria	Kideak	15
PEO Bizkaia	Gizonak, berdintasuna eta indarkeria	Kideak	15
Gasteizko Berdintasun eta Jabekuntza Eskola eta Gasteizko Berritzegunea	Gazteak Berdintasunean 2.0.	Irakasleak	4
Laudioko Berritzegunea	Gazteak Berdintasunean 2.0.	Irakasleak	4
Debako HHE	Gizonak, berdintasuna eta indarkeria	Irakasleak	4
Fadura institutua	Gazteak Berdintasunean 2.0.	Ikasleak	6
Fadura institutua	Gazteak Berdintasunean 2.0.	Ikasleak	6
Fadura institutua	Gazteak Berdintasunean 2.0.	Ikasleak	6

Elkarteekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroen taula

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Iraupen-orduak
Zubietxe	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak.	Bertako langileak	5
Lagun artean	Maskulinitateak, indarkeria matxista eta arriskuak	Hezitzaileak	10
Izangai	Gizonak, berdintasuna eta gizonezkoen indarkeria	Hezitzaileak	10
Martuteneko Iresgi espetxea	Gizonak, berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria	Presoak	12
Martuteneko Iresgi espetxea	Gizonak, berdintasuna, bide-segurtasuna eta arriskuak	Presoak	4

Aurrez aurreko ikastaroen balorazioak

Jarraian, aurrez aurreko ikastaroetako partaideek emandako balorazioen batez bestekoak ageri dira, 6 puntuko baremoa oinarri hartuta. 441 balorazio bildu dira: 149, emakumeek egindakoak; 246, gizonek; 6 beste batzuk epigrafean jasotakoak dira, eta 40 pertsonak ez diote galderari erantzun. Sexua eta adina kontuan hartuta, ebaluazio hauek bildu dira:

Ebaluazioak sexuaren eta adinaren arabera	16-24 urte	25-30 urte	31-54 urte	55 urte eta gehiago	EDE
Emakumeak	7	11	107	23	1
Gizonak	1	21	171	50	3
Beste batzuk	1		5		
Ez du erantzun	1	9	25	1	4

Ikastaroen balorazioak (Otik 6ra)

	Emakumeak	Gizonak	Beste Batzuk	Batez Bestekoa
Ikastaroaren balorazio orokorra	4,9	4,7	5,2	4,8
Ikasgaiaren inguruan lehendik zenezuzkan ezagutzak	3,7	3,5	3	3,5
Edukia	4,8	4,5	5	4,8
Hizlaria	5,2	5,1	5,2	5,1
Dinamizazioa	4,9	4,7	5,4	4,8
Taldearen partaidetza	4,6	4,5	5,3	4,6
Antolakuntza	4,7	4,5	5,2	4,6
Eremua	4,5	4,7	4,4	4,6
Erabilitako materialak	4,7	4,4	4,8	4,5
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako? (%)	92%	90%	83%	96%
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako? (%)	83%	78%	67%	91%

Aurrekoetan bezala, inkestako galdera irekietan ikastaroei buruzko alderdi positiboak emateko balorazio kualitatiboak jasotzen dituzte. Besteak beste: erabilitako materialak, eta eztabaida interesgarriak eta haietan parte hartzeko modukoak dakartzan metodologia. Azaldutako teoria eguneroko bizitzarekin lotuta dagoela eta ikasleen errealitate profesionalera egokitzen dela azpimarratu da.

Gehien errepikatu den hobetzeko proposamena honako hau da: ikastaro luzeagoak egitea, gaiak denbora luzeagoan eta sakonago landu ahal izateko. Gaiak eremu profesionalean lantzeko tresna zehatzak eman behar direla ere azpimarratu da.

Oro har, ikasleek lanari lotutako alderdietan sakondu nahi dute. Eta alderdi horietako batzuk aipatzearen: gizonekin berdintasuna lantzeko metodologiak eta tresnak, kultura-artekotasuna, gazteen heziketa eta emakumeen aurkako indarkeria.

Ikastaroen gaineko balorazioak aurreko urteetako antzekoak izan dira. Orokorrean esan daiteke Gizonduz ekimenaren barruan eskaini diren aurrez aurreko ikastaroei bete egin dituztela parte hartu duten ikasleen itxaropenak, baita programaren helburuak ere.

Ezinbestean azaldu behar da, gainera, pertsona batzuek lehendik ere ikastaroren bat egin ostean parte hartu duten arren, partaide gehienek (emakumeen % 82k eta gizonen % 83k) lehenengo aldiz egin dutela ikastaroetako bat.


Ez da desberdintasun nabarmenik antzeman sexuaren edo adinaren arabera galdeketa alderdien gainean egindako balorazioari dagokionez.

2.2.3. Internet bidezko ikastaroak

2.2.3.1. Online sentsibilizazioa


Ikastaro horretan, alderdi ugari lantzen dira: genero-desberdintasunen jatorria, sexuaren araberako rolerak eta estereotipoek sozializazioan duten eragina, eredu maskulinoen berrikuspena, norberaren eta gainerako pertsonen zainketak gizakion bizitzan duen garrantzia, gizonek etxeko lanetan eta beste pertsona batzuen zainketan duten parte-hartzea, sozializazio sexistak gizonengan eragiten dituen genero-arazoak, indarkeriaren legitimazioak identitate maskulinoen eraikuntzan duen eragina, eta abar.

Ikastaroa 2009. urtean hasi zen ematen. 2009tik 2014ra artekoetan (biak barne), 590 lagunek ongi bukatu zuten ikastaroa: 431 emakumek eta 209 gizonek.



2015. urtean, guztira, 43 pertsonak bukatu zuten ongi ikastaroa: 18 emakumek eta 25 gizonek.

Ikastaroaren gaineko balorazioa (6 puntu gehienez)



Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako?	BAI	% 91	% 95	% 85
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako?	BAI	% 91	% 95	% 85

Ikastaroaren balorazio orokorra positiboa izan da (4,83 puntu, gehienez emateko 6 puntutik). Ikastaroaren edukiei ere balorazio ona eman zaie: 4,63 puntu.

Azpirarratzeko modukoa da, gainera, ikastaroa egin duten pertsonen % 91ren ustez ikastaroa baliagarria izan dela euren bizitza pertsonalerako eta profesionalerako.

Pertsona gutxi egin dute ikastaroa (43 pertsonak bakarrik). Partaide horien % 58,1 gizonezkoak izan dira, hau da, aurreko urtean baino % 47,8 gizon gehiagok parte hartu dute.

2.3 JARDUNALDIAK: “EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EAEKO LEGEAK 10 URTE. AURRERAPAUISOAK ETA ERRONKAK GIZONEKIN EGINDAKO LANEAN”.

Guztira 118 pertsonak (94 emakumek eta 24 gizonek) parte hartu zuten jardunaldi horietan. Jardunaldiak urriaren 2an egin ziren, Bilbon, helburu honekin: EAEko Berdintasunaren Legea ezarri zenetik 10 urte igaro direnean gizonentzako politika publikoen gainean hausnarketa egitea. Berariaz, programa hau prestatu zen:

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria eta Jarraipen Batzordeko presidente Izaskun Landaida Larizgoitiak aurkeztu zuen jardunaldia. Segidan, jardunaldiko esparru-hitzaldia izan zen: “Berdintasunaren alde gizonekin egindako lanaren ildoak eta nazioarteko esperientziak”; hizlaria Michael Kaufman izan zen, Begizta Zuriaren kanpainaren sortzaileetako bat, Promundo institutuko ikertzaile eta MenCareko kidea.

Ondoren, mahai-ingurua antolatu zen. Hauek izan ziren parte-hartzaileak: Idoia Eizmendi Aldasoro, Getxoko Udaleko berdintasun teknikaria; Ander Bergara Sautua, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko teknikaria; eta Mikel Otxotorena Fernández, On:Giz elkarteko sortzaileetako bat eta Gizon Sareko kidea. Mahai-inguruan gai hau jorratu zen: “Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legeak 10 urte: aurrerapausoak eta erronkak gizonekin egindako lanean”. Moderatzailea Ana Alberdi izan zen, Emakundeko idazkari nagusia.

Mahai-inguruko esku-hartzeen ostean, bertaratutako pertsonak taldeka bildu ziren eta hizlariak aurkeztutako gaiez aritu ziren eztabaidan. Jardunaldiaren amaieran, taldeen lan-ondorioak bateratu ziren.

Jardunaldiari buruzko informazio guztia (bideoak, ekarpenak, balorazioak...) estekan kontsulta daiteke.

2.4 AITAK+ KANPAINA

The screenshot shows the website for the #Aitak+ campaign. At the top, there are logos for 'Irekia' and 'euskadi.eus'. Below the logos, there is a navigation bar with links for 'Participación', 'Departamentos', 'Agenda', 'Noticias', 'Videos y fotos', 'Redes Sociales', and 'Programa de Gobierno'. A search bar and user options like 'Regístrate' and 'Login' are also present. The main content area features a video player for the '#Aitak+' campaign, with 14 participations and tags like 'Gizondus', 'Igualdad', and 'padres'. Below the video, there are sections for 'PRESENTACIÓN' (17 de marzo de 2015), 'DEBATE' (18 de marzo de 2015), and 'CONCLUSIONES' (20 de abril de 2015). At the bottom, there is an 'Introducción' section with text about the campaign's goals and a 'Descargas medios de comunicación' section listing various PDF files for download, such as 'Carta_hombres_vascos_es.pdf' and 'guia_adopcion.pdf'.

Kanpaina honek hilabeteko iraupena izan zuen. Martxoaren 19an jarri zen abian, hau da, gizonen berdintasunaren aldeko mugimenduak berdintasunezko aitatasuna eta aitatasun erantzunkidea aldarrikatzen duen egunean.

Kanpaina herritarrentzat eta, bereziki, aitentzat izan zen. Helburua hauxe izan zen: parte hartzeko eta hausnarketa egiteko espazio bat sortzea sare sozialetan eta, horren bidez, berdintasunezko aitatasunaren eta aitatasun erantzunkidearen aldeko ideiak eta ekintzak bultzatzea. Eusko Jaurlaritzaren online parte hartzeko Irekia ataria eta Gizonduz ekimenaren Twitterreko kontua izan ziren aipatu helburua lortzeko tresna nagusiak. Kanpainan zehar zabaldutako materialak Gizonduz ekimenean egingakoak izan dira, gizonek zaintzan parte-hartze handiagoa izateko asmoz bultzatutakoak. Hemen biltzen dira denak: “Aitentzako Gizonduz bizkar-zorroa”.

Kanpainaren zabalkundeak oso emaitza ona izan zuen. Twitterren 61.879 erabiltzailek ikusi zuten kanpaina. Guztira 383.249 pertsonak ikusi zuten.

Facebooken 8.910 erabiltzaile sartu ziren kanpainan berariaz jarritako 10 sarreretara. Halaber, Gizonduz blogean 8 sarrera jarri ziren, eta webgunean aitatasunei eta erantzunkidetasunari buruzko elkarrizketa bat argitaratu zen. Estatuko “Red estatal de Hombres por la Igualdad” sareko kide eta PPIINA plataformako zuzendaritza-taldeko kide Mariano Nietori egin zitzaion elkarrizketa hori.


2.5 «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA

2015ean zehar, «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» proiektuaren inguruko lanei eutsi zitzairen, EJIE SA sozietate publikoarekin lankidetzan. Proiektuaren xedea da nerabeen eta gazteen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatzea –eta, bereziki, gizonezkoena–, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten. Horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak baliatuko dira, teknologia berrietan oinarritutakoak.

Era berean, 2 ikastetxetako pertsonaz osatutako 5 taldetan eta 2 Berritzegunetan probatu zen bideo jokoa. Ikastetxeetan egindakoak ikasleentzat izan ziren, baina ikastetxe horietako batean irakasleentzat ere izan ziren. Berritzeguneekin elkarlanean antolatuta ziren ikastaroetan, irakasleek parte hartu zuten. Azpimarratzekoa da Gasteizko Berritzegunean egindako ikastaroa Gasteizko Udalaren Berdintasun eta Jabekuntza Eskolarekin elkarlanean egin zela, haren programazioaren barruan.

Gazteak Berdintasunean 2.0. proiektuak 3 plataforma ditu:

- Informazio-web edo «erakusleiho» bat: proiektuaren garapenari eta faseei nahiz proiektuan lanean ari diren erakundeei buruzko informazioa emango du.
- Online abentura grafiko bat (bideo joko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta halakoak izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.
- Komunitate birtuala: nerabeen arteko komunikaziorako eta parte-hartzerako guneak sortuko ditu.



2.6 PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-JARDUEREN HEDAPENA

Aurreko urteetan bezala, 2015ean ere, Gizonduz-en ikastaroez gain, hedapena eman zitzaien berdintasunarekin lotuta eskaintzen diren unibertsitateko masterrei eta graduondokoei eta IVAPen ikastaroei, bai eta Berdintasunerako Foroak antolatutako jardueri ere, prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera horietan gizonen partaidetza areagotzeko xedearekin. Horretarako, buletin elektronikoaren, Gizonduz-en webgunearen eta sare sozialen bidez publizitatea eman zitzaien.

2.7 NAZIOARTEKO JARDUNALDIETAN ETA TOPAKETETAN PARTE HARTZEA

2015. urtean zehar, NBE Argentinak sustatutako hainbat ekitaldi, bilera eta topaketatan parte hartu du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak. Horietan, hain zuzen, EAEn emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko Emakundek zer-nolako lana egiten duen azaldu zitzaien estatu, probintzia eta udal agintariei zein gizarte-eragileei. Besteak beste, Argentinako “Red de Hombres por la Igualdad” sarearen topaketan parte hartu zuen. Estatuko Gobernuko Lan ministroa eta Emakumearen Nazio Kontseiluko presidentea izan ziren topaketaren buru; eta Nazio Batuen Garapenerako Programak antolatu zuen. Herrialdeko politikan, kulturen, komunikabideetan, enpresetan, sozietate zibilean eta bestelako esparruetan ezagunak diren gizonak osatzen dute sare hori, eta denek hartu dute berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako konpromiso publikoa. Emakunde topaketa horretan parte hartzera gonbidatu zuten, EAEko gizonak berdintasunaren alde esku har dezaten erakundeak egiten duen lana azaltzeko eta, bereziki, Gizonduz ekimena eta haren prestakuntza-programa azaltzeko.

2.8 GIZONDUZ PROGRAMAREN EBALUAZIOA

Gizonduz ekimenaren sustatzaileak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, 2015. urtean jarri zuen abian Gizonduz ekimena ebaluatzeko prozesua. Lan horretarako, kanpoko aholkularitza-enpresa bat kontratu zuen.

Honako helburu hauek ezarri ziren:

- Programa 2007-2015 urteetan ezartzeari lotuta dauden alderdi batzuk aztertzea: programazioa (jarduerak, aurreikusitako zereginak, metodologia); programaren antolaketa; baliabideak (erabilgarritasuna eta erabilera); programaren garapenari lotuta dagoen operazio-kontrola egiteko sistema; programaren jarraipena egiteko informazio-sistema; funtzionamenduaren kostuak; koordinazioa; eta erakarri diren xede-kolektiboak.
- Programaren ekintzetan (biltzarrak eta kanpainak; Gizonduz bizkar-zorroa; web espazioa; Prestakuntza eta Sentsibilizazio Programa; Gazteak Berdintasunean 2.0 proiektua) parte hartzen duten alderdi guztien gogobetetasun-maila aztertzea: nork diseinatu duen, nork gauzatu duen eta nor diren hartzaileak/onuradunak.
- Aldaketak eragiteko aukera gehien duten ekintza biak (Gizonduz bizkar-zorroa eta Prestakuntza eta Sentsibilizazio Programa) ezartzearen emaitzak ebaluatzeko, kuantitatiboki eta kualitatiboki: gizonen emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde duten sentsibilizazio-maila; arlo horretan prestatuta dauden gizonen kopurua; etxeko lanak egiten eta pertsonak zaintzen parte hartzen duten gizonen kopurua.
- Gizonduz programaren alderdi sendoak eta ahulak aztertzea.

Gizonduz programan jasotako ebaluazio-helburuez gainera, ebaluatzeko proiektu honetan pentsatu da emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko kontzientziazioa eta parte-hartzea susta dezaketen politiken etorkizunerako garrantzitsuak izan daitezkeela:

- Gizonentzako politika mota horietan parte-hartzea (teknikoa, politikoa edo soziala) duten sektoreek gai horri buruz zein iritzi duten jakitea: alde onak eta txarrak; adostasunak eta desadostasunak; emakumeen ahalduntze ekonomikoa, soziala eta politikoa lortze aldera bultzatuko diren ekintzek bete beharreko irizpideen mugatzea.
- Sektoreek (teknikoen, sozialek eta politikoen) gizonentzako politiken eta ekintzen gainean aipatu dituzten alde onak eta txarrak jasotzen dituen dokumentua prestatzea; eta, bertan, lortutako akordioak ere jasotzea.

Ebaluazio horren emaitzak 2016. urtean aurkeztuko dira.

2.9 AHOLKULARITZA

Azkenik, 2015ean, 330 kontsultari erantzun zitzaizkien, aurrez aurre, posta elektronikoz nahiz telefonoz, bai Gizonduz ekimenari buruz, bai gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako beste gai batzuez.



Manuel Iradier, 36
01005 Vitoria-Gasteiz
Tel 945 01 67 00
Mail emakunde.gizonduz@euskadi.eus